

AURREKONTU IREKIAK 2021 PROIEKTUAREN EGOERAREN AZALPEN MEMORIA

2021eko aurrekontu irekien proiektua, COVID-19aren ondoriozko arrazoiengatik, 2020ko azaroan jarri da abian.

Proiektuaren bilakaerari dagokionez, adierazi behar da gaur egun *2. fasean dagoela: Aurrekontu Irekiak egiteko herritarren partaidetza-prozesurako protokoloa diseinatzea eta onartzea*. Protokoloaren zirriborroa Gipuzkoako Foru Aldundiko Herritarren Partaidetzarako Foru Batzordeak aztertu du. Jarraian, abenduaren 21ean, aipatutako zirriborroa helarazi zitzaion Herritarren Partaidetzarako Gizarte Kontseiluaren Gobernu Kontseiluari. 2021eko urtarrilean, GFaren Egoitza Elektronikoa jarriko da herritarren eskura, hark, egoki iritziz gero, ekarpenak egin ditzan.

Aurrekontu parte hartzaileen prozeduraren bidez gauzatzeko gastuaren zenbatekoa edo partida zehazteko, 2021erako behin betiko aurrekontua onartu behar da.

Prozesu osorako hasieran aurreikusitako egutegia aipatutako protokoloan zehazten da. Bertan, herritarrek esku hartuko duten 2 fase erabakigarriak ere ezartzen dira. Hasiera batean, herritarren proposamenak jasoko dira, GFAko sailek barnean landuko dituzte, eta ondoren, proposamen horiek proiektu zehatz bihurtu ondoren, herritarrek bozkatuko dituzte.

Alde horretatik, Gobernu Kontseiluak, 2021eko urtarrilaren 12ko bilkuran, egoki baderitzo, erabaki beharko du 2021eko aurrekontu irekietara 1.000.000 euroko partida xedatzea/bideratzea, Herritarren Partaidetzarako Zuzendaritza Nagusian gaituko den partida baten kargura.

Argibide gehiago emateko, proiektua gauzatzeko kronograma eguneratua sartu dugu protokolo-proposamenean.

Mikel Pagola

Herritarren Partaidetzako zuzendari nagusia